

2017ko EKAINAREN 13ko 1/17 ZENBAKIKO EZOHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

AKTA

1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILKURAKO AKTA, MAIATZAREN 25eko 3/17 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAKOA.

[...]

Berretsi egin dira 2017ko maiatzaren 25eko ohiko bilkuran hartutako erabakiak.

EBAZPENAK.

2.- HASIERA BATEAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2017ko OHIKO UDAL AURREKONTUA.

2017ko Ohiko Udal Aurrekontuaren espedientea helarazi da. Ekainaren 13ko 1/17 zenbakiko ezohiko Ogasuna, Ondarea, Barne Erregimena eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian eman zen horren berri, eta derrigorrezkoa da Udalbatzak aldeko txostena idaztea. AEI taldeko bi ordezkarien aldeko botoekin, EAJ-PNV taldeko ordezkariaren abstentzioarekin eta EH Bildu taldeko ordezkariaren aurkako txostenarekin, gehiengo sinplea proposatuz, 2017ko Ohiko Udal Aurrekontuaren espedientea onesteko proposamena egin da.

[...]

Eztabaida amaitutzat eman ondoren, alkate-udalburuak 2017ko aurrekontuaren proiektua bozkatzeko eskatu du. Eraitza honako hau izan da:

Aldeko botoak:5, AEIrenak.

Aurkako botoak:4 (3 Bildurenak eta 1 EAJrena).

Abstentzioak:bat ere ez.

Honako hau erabaki da gehiengo sinplearekin, hau da, bost aldeko boto eta lau aurkako botorekin:

Hasieran onestea 2017 ekitaldiko udalaren aurrekontua. Honako laburpen honek aurrekontua laburtuta azaltzen du:

2017ko DIRU-SARRERAK KAPITULUKA LABURTUTA:

<u>KAPITULUA</u>	<u>KAPITULUAREN IZENA</u>	<u>KOPURUAK</u>
1	Zuzeneko zergak	367.200
2	Zeharkako zergak	36.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	55.250
4	Transferentzia arruntak	1.563850
5	Ondare sarrerak	419.100
6	Inbertsio errealak besterentzea	2.600
7	Kapital transferentziak	2000
8	Finantza aktiboak	3.000
	DIRU SARREREN AUREKONTUA, GUZTIRA:	2.449.000 €

2017ko GASTUAK KAPITULUKA LABURTUTA:

<u>KAPITULUA</u>	<u>KAPITULUAREN IZENA</u>	<u>KOPURUAK</u>
1	Langileen gastuak	652.355,37
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.266.347,63
3	Finantza-gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	340.297
5	Gertakizunetarako funtsa. Ezustekoak.	15000
6	Inbertsio errealak	75000
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	100.000
9	Finantza pasiboak	0
	GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.449.000 €

Eta eranskinak honako hauek dira:Taula deskribatzaileak, programaka.

Alkatearen memoria; bertan azaltzen dira edukia eta egindako aldaketa nagusiak.

Konpromisozko kredituen eranskina, inbertsioen eranskina eta zorpetze-mailaren eranskina.

Transferentzien eranskina diru-laguntzak arautzeko prozedurarekin; Euskara ikastaroak egiteko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza; fatxadak eta teilatuak birgaitzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza; diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza, diru-laguntzen oinarri arautzaileekin; eta aitortutako transferentziak direla-eta betebeharrak sortzen dituzten erakunde eta elkarteekin sinatutako hitzarmenen zerrenda.

2017ko aurrekontu-plantilla eta aurrekontu-hornidura duten plazen zerrenda, langileen kostua programaka xehatuta eta kreditu-hornidura guztia.

2017ko Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua espedientearekin batera doa.

2016ko aurrekontuaren likidazioaren laburpena, eta 2017 ekitaldiko lehen hiruhileko gastu-arauaren betetze-mailaren eta ebaluazioaren txostena.

Azkenik, 2017ko aurrekontu-proiektuaren finantzari, ekonomiari eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko txostena, idazkari kontu-hartzaileak sinatuta.

Erabaki hau jendaurrean ikusgai jarriko da iragarki-oholean eta BAOn, 15 egun balioduneko epean, interesdunek horiek aztertu ahal izateko eta Udalbatza Osoari egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurrean ikusgai jartzeko epean erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betikotzat joko da.

2017ko aurrekontu orokorra, behin betiko onetsitakoa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kapituluka laburtuta. Eta indarrean jarriko da behin betiko onespena eta kapituluka laburtutako aurrekontua argitaratzen direnean.

3.- KONTU-HARTZAILEAREN JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN ETA ALDEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Ekainaren 13ko 1/17 zenbakiko Ogasuna, Ondarea, Barne Erregimena, Langileak eta Kontuak Informazio Batzorde Berezian, idazkari kontu-hartzaileak ekainaren 8an jasangarritasunari buruz idatzitako txostenaren berri eman zen (22/2017 zenbakia). Ikusi da 2017ko aurrekontua aldatzeko eta kreditu gehigarriez **(264.141,95 €)** hornitzeko izapidetutako espedientea. Hori onetsiz gero, ez litzateke aurrekontuaren egonkortasuna beteko.

Txostena Udalbatzari helarazi zaio jakinaren gainean egon dadin; halaber, Bizkaiko Foru Aldundiari igorriko zaio, Udalbatzari berri eman zaiola frogatzen duen ziurtagiriarekin batera, Bizkaiko Toki Erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 6.5 artikulua babesean, aldundiak baitu finantza-tutoretza, .

Berri eman ondoren, jasangarritasunari buruzko txostenaren jakitun geratu dira.

Ekainaren 13ko 1/2017 zenbakiko Ogasuna, Ondarea, Barne Erregina, Langileak eta Kontuak Informazio Batzorde Bereziaren ezohiko bilkuran helarazi zen kreditu gehigarrien bitartez 2017ko aurrekontu aldaketaren espedienteari buruzko derrigorrezko txostena. Aldaketa hori egin da bi gastu-partida sortzeko eta aldaketan sartzen diren inbertsio-gastuetako lau partiden kredituei beste bi gehitzeko; izan ere, kasu batzuetan ez dago gastu-partidarik edo kreditua ez da nahikoa.

Jasangarritasunari buruzko txostenaren berri eman da, eta espedientea Bizkaiko Foru Aldundiaren jakinarazpenaren zain dago, idazkari kontu-hartzaileak Udalbatzari berri eman

diola frogatzen duen ziurtagiriarekin batera. Hortaz, txostena aurkeztu da Udalbatzak hasiera batean onetsi dezan, eta AEI taldeko zinegotziek aldeko txostenarekin eta Bildu eta EAJ-PNV taldeko zinegotziak abstentzioarekin, hasiera batean onestearen alde agertu dira, gehiengo sinplearekin.

[...]

Aho batez onetsi da 2017ko aurrekontuaren 4 zenbakiko kreditu aldaketaren espedientea, honako partida hauei kreditu gehiago emateko helburuarekin:

Gastuen partida	Inbertsioaren izena	Urteko kreditua	Kreditu gehigarria.	Behin betiko kredituak
342-68200	Gizarte-etxea birgatzitza. III. fasea. Gimnasioa handitzea	30.236,44 €	90763,56 €	121.000 €
161-60100	Cotarroko ur-sarea hornidura betetzea	44211,14 €	67.568,43 €	111779,57 €
337-60102	Mercadillo plazako haur-parkea	0	93552,66 €	93.552,66 €

342-60101	Futbito eta bestelako kirol zelaia eraikitzea La Sotan	0	12.257,30 €	12.257,30
Guztira			264.141,95	
Diru-sarrerren partida	Izena			Zenbatekoa
870	Diruzaintzaren soberakinaren zati bat 2016ko Aurrekontuaren Likidazioaren Gastu Arruntetarako.			264.141,95 €

Bizkaiko Foru Aldundiak gogoan hartu du Bizkaiko Toki Erakundeetako aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 6.5 artikulua babesean izapidetutako espediente honen jasangarritasunari buruzko txostena, espedientea izapidetzen jarraitzeko, behin betiko onetsi arte eta indarrean sartu arte.

Erabaki hau jendaurrean ikusgai jarriko da iragarki-oholean eta BAO-n, 15 egun balioduneko epean, interesdunek horiek aztertu ahal izateko eta Udalbatza Osoari egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurrean ikusgai jartzeko epean erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betikotzat joko da.

4 zenbakiko 2017ko aurrekontu orokorra kreditu gehigarrien bitartez aldatzen duen espedientea behin betiko onesten denean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da kapituluka laburtuta, eta indarrean sartuko da behin betiko onespena eta eragindako gastu eta diru-sarrerren partidak argitaratzen direnean.

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, UDAL AURREKONTUAREN KARGURA.

Ekainaren 13ko 1/17 zenbakiko Ogasuna, Ondarean, Barne Erregimena, Langileak eta Kontuak Informazio Batzorde Berezian 2017-2019 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren berri eman zen. Plan hori diru-laguntza arruntei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8. artikuluan xedatzen denari jarraikiz zehaztu da; artikulua horrek dio diru-laguntzak sortu aurretik Plana zehaztu behar dela. AEI taldeko bi ordezkariak aldeko txostena idatzi dute, eta Bilduko eta EAJ/PNV taldeetako ordezkariak abstenitu egin dira. Aldeko txostena idatzi da, Udalbatzak gehiengo sinplearekin onetsi ondoren.

[...]

Alkate-udalburuak eztabaida amaitutzat eman du, eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoa bozkatu da.

Aldeko botoak:6 (5 AEI eta 1 EAJ-PNV).

Aurkako botoak:Inor ere ez.

Abstentzioak:3, Bildurenak.

Korporazioko kideen legezko gehiengo absolutuarekin erabaki da hasiera batean onestea Sopuertako Udaleko 2017-2019 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, eta jendaurrean ikusgai jartzea iragarki-oholean eta BAO-n, 15 egun balioduneko epean, interesdunek horiek aztertu ahal izateko eta Udalbatza Osoari egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Jendaurrean ikusgai jartzeko epean erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko erabaki hori indarrean sartuko da automatikoki erabaki horren behin betiko onespena argitaratzen denean.